

HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAKO LUR, LURRAZPI ETA LURGAINAREN ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

1. Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak araupetzen dituen Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat, honako ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie udalerriko bide publikoetako lur, lurrazpi eta lurgainaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik.

2. Ondore horietarako, honako hauek joko dira hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat:

a) Energia elektrikoa, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.

b) Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareak edo instalazioak erabiltzea alde batera utzita.

c) Hornidura zerbitzuak ematen dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak emateko erabiltzen dituen hoditeriak, hariak eta gainerako instalazioek udalerriko lurra, lurgaina edo lurrazpia okupatzen badute.

3. Artikulu honetan ezarritako ondoretarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. artikulua

1. Zergapeko egitatea da interes orokorreko edo herritarren gehiengoari zein zati garrantzitsu bati hornidura zerbitzuak ematen dizkieten eta horiek ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea.

2. Kuantifikaziorako erregimen berezi hori aplikagarria izango zaie aurreko atalean aipaturiko enpresei, bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak direnean, bai horien titularrak ez izanik ere, sareak erabiltzeko, horietan sartzeko edo horiekin interkonektatzeko eskubideen jabe direnean.

3. Telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi horretan sartuko.

4. Atal honetan arautzen diren tasak bateragarriak dira udal eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik finka daitezkeen bestelako tasekin, baldin eta hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileak haien subjektu pasiboak badira, 9/05 Foru Arauko 24.1.b artikuluan ezarritakoaren arabera. Alabaina, udal bide publikoetako lur, lurrazpi eta lurgainean eratutako erabilera pribatibotik edo aprobetxamendu berezitik sor litezkeen bestelako tasen ordainketa ez da tasa honen ordainarazpenarekin bateragarria izango.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Foru Arau Orokorreko 34. eta 35. artikuluetan aipatutako pertsona juridikoak eta erakundeak, eta interes orokorreko edo herritarren gehiengoari zein herritarren zati garrantzitsu bati hornidura zerbitzuak ematen dizkieten eta horiek ustiatzen dituzten enpresa ustiatzaileen titularrak, baldin eta udalerriko bide publikoetako lur, lurrazpi eta lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten badute.

2. Artikulu honetan ezarritako ondoretarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

IV. ZERGA OINARRIA

5. artikulua

1. Tasa honen zerga oinarria zehazteko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal barrutian urteko fakturazioan biltzen dituzten diru-sarrerara gordinak hartuko dira kontuan.

2. Diru-sarrerara gordintzat joko dira erakundeari egotz dakizkiokeenak, udalerrian emandako zerbitzuen ordain gisa jasotakoak.

3. Ez dira diru-sarrerara gordintzat joko emandako zerbitzuak zergapetzen dituzten zeharkako zergak, ezta ere, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituen enpresaren diru-sarrerara propioak ez diren eta hirugarren baten kontura kobratu diren zenbateko edo partidak.

4. Hornidurak egitean inoren sareak erabiltzen dituzten enpresek kopuru horiek kenduko dituzte beren fakturazioaren diru-sarrera gordinetatik, hain zuzen, sare horietara sartzeagatik edo haiekin interkonektatzeagatik beste enpresei ordaindutako kopuruak. Sare horien titularrek beren fakturazioaren diru-sarrera gordinen artean konputatu beharko dituzte kontzeptu horretatik jasotako kopuruak.

5. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92. artikuluan eta Ikuskaritzari buruzko Araudiko 51. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, sareen enpresa titularrek Udalak eskatzen dien informazioa eman beharko dute sareetara sartzeagatik edo interkonektatzeagatik diru-sarrerak ematen dizkieten enpresei buruz.

V. KUOTA

6. artikulua

1. Zergaren kuota enpresa horiek udal barrutian urteko fakturaziotik ateratzen duten diru-sarrera guztien % 1,5 izango da.

2. Aprobetxamendu bereziak tokiko jabari publikoa suntsitzea edo hondatzea dakarrenean, onuradunak, dagokion tasa ordaintzeko betebeharrean eragin gabe, berreraikitze edo konpontze lanei dagokien gastu osoa ordaindu eta alde zurretik zenbatekoa aurkeztu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, suntsitutako ondasunen edo kaltetutakoen balioaren zenbateko berdina ordainduko zaio Udalari kalte-ordain gisa.

Udalak ezin izango ditu atal honek aipatzen dituen kalte-ordainak eta diru itzultzeak barkatu, ez zati batean, ez osorik.

VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

7. artikulua

1. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lur, lurrazpi edo lurgainaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu behar duten tasa sortu egingo da aprobetxamendu berezia abiarazten denean, eta horren ondoren, urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean.

2. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren aprobetxamendua gauzatzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli beharko zaio.

VII. LIKIDATZEA ETA ORDAINTZEA

8. artikulua

Udalak dagokion likidazioa egin du, eta likidatutako zenbatekoa sartu egingo da.

VIII. TASAK KUDEATZEA

9. artikulua

Hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileek udaletxean aurkeztu beharko dute, hiruhileko bakoitzaren lehenengo 15 egunetan, aurreko hiruhilekoan lortutako diru-sarrera gordinak jasotzen dituen aitordpena. Aitordpen horrekin batera, udalerrian egindako fakturazioaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, baita kasuan kasu Udal Administrazioak eskatzen duena ere.

10. artikulua

1. Udal administrazioak hiru hilean behingo likidazioak egingo ditu. Behar diren egiaztapenak egin arte, likidazioak behin-behinekoak izango dira. Egiaztapenak amaituta, behin betiko likidazioa egingo da eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Borondatezko epea igarotakoan, zorra premiamenduaren bidez ordainaraziko da.

2. Nolanahi ere, behin-behineko likidazioak behin betikotu egingo dira, hiru urte igarotzen direnean aurreko artikulua aipatzen duen aitordpena aurkeztu zenez geroztik.

3. Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek autolikidazio araubidea aukera dezakete, hiru hilean behin aurreko hiruhilekoan lorturiko fakturazio gordinaren zenbatekoa aitortzeko betebeharra betetzean eragin gabe.

4. Artikulu honetan eta aurrekoan jasotako kudeaketa arauak osagarriak izango dira Udalaren eta hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileen artean hitzarmenak edo akordioak daudenean.

11. artikulua

Zergen arloko arau-hausteak, horien kalifikazioa, eta horiei dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoa beteko

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Udalbatza Osoak 2007ko urriaren 26an eginiko bileran hartutako erabakiaren bidez onetsi da, indarrean sartuko da 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera eta indarrean jarraituko du berau aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean. Aldatzen ez diren artikuluek indarrean jarraituko dute.

Tasaren arauketan aurrekontuei buruzko Foru Arauek edo zuzenean aplikatzekoak diren beste edozein arau edo xedapenek sartzen dituzten aldaketek, bidezkoa bada, kasuan kasuko isileko aldaketa eragingo dute Ordenantza Fiskal honetan.